



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzak 22a

Vitoria-Gasteiz, 22 de mayo de 2018

Lehendakaritza

JAURLARITZAK AURTEN 35,5 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUETARA

- **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako 300 proiektu inguru daude abian gaur egun**

Jaurlaritzaren Kontseiluak oniritzia eman dio garapenerako lankidetzaren proiektuen deialdia egiteari eta guztira 35,5 milioi euro bideratuko ditu horretarako.

Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako diru-laguntzek Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzaren burutzen duen jardueraren ardatza osatzen dute eta horietara bideratu dira Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak kudeatzen dituen funts gehienak.

Diru-laguntzok hiru modalitate hauetako proiektuak finantzatzeko izango dira:

1. **Garapenerako lankidetzaren proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko. Modalitate horretara bideratuko dira diru-laguntza gehienak: guztira, 29.000.000 euro, hain zuzen.
2. **Garapen produktiborako, prestakuntzarako eta laguntza teknologikorako proiektuak**, Hegoaldeko herrialde txiroetako pobrezia aurka egiteko zuzenean. 1.200.000 euro bideratuko dira horretara.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan **garapenerari buruz egindako hezkuntza proiektuetarako diru-laguntzak**, munduan desberdintasunak sorrarazten dituzten arrazoiak ulertarazteko eta oraingo gizarte-ereduak eraldatzen herritarren inplikazioa eta konpromisoa sustatzeko. 5.300.000 euro bideratuko dira proiektu horietarako.

Laguntza horien hartzailak EAEko GGKEak izango dira, edota Euskadin ordezkaritza dutenak, baldin eta Hegoaldeko herrialdeetako erakunde eta mugimenduekin batera ari badira lanean.

Proiektu bakoitzerako diru-laguntza gehienez ere 600.000 eurokoa izango da eta proiektuaren iraupena bi urtekoa izango da. Honako sektore hauetan kokatuko dira proiektuok: eskubide unibertsaletan, gobernantza demokratikoan eta tokiko boterean, tokiko garapen ekonomikoan, ingurumena babestu eta zaintzean eta emakumeen ahalduntzean.

Gaur egun, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 300 bat proiektu finantzatzen ditu mundu osoan. Horietako gehienak, Euskadin eta honako

herrialde hauetan gauzatzen ari dira: Peru, Bolivia eta Ekuador, Hegoamerikan; Guatemala, El Salvador eta Mexiko, Ertamerikan; Kongoko Errepublika Demokratikoa, Senegal eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa, Afrikan; eta India eta Palestina Asian.

Eskabideak nola izapidetu eta zein dokumentazio aurkeztu behar den jasota dago <https://euskadi.eus> egoitza elektronikoan eta www.elankidetza.euskadi.eus webgunean.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNUAK EAJ-PNV ETA PSE ALDERDIEK DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMA EGUNERATUKO DUEN LEGEA PRESTATZEKO BATERA EGIN DUTEN PROPOSAMENA OSPATU DU

- **Lege-proposamena kontuan hartzeko irizpena adierazi du; izan ere, testu horrek prestazioa egungo premietara egokitu, sistema hobetu eta babeseke eta gizarte-kohesio indizeak areagotu nahi ditu**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde legebiltzarkideek batera aurkeztutako “*Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako*” lege-proposamenaren aldeko irizpena adierazi du.

Eusko Jaurlaritzak aitortu du DSBEak ematen duen euskal babes-sistemak ez duela parekorik Estatuan, eta txalotu egin du bi alderdi politikoek aurkeztutako testuaren helburua Gobernua bera kudeatzean urteetan antzeman diren disfuntzioak zuzentzea izatea eta, horrela, prestazioa egungo errealitate sozioekonomikora egokitzea. Gobernuak ongi ikusten ditu aldaketa horiek; izan ere, sistema hobetzea eta orain arte emandako babes- eta kohesio-indizeak areagotzea dute helburu.

Gobernuak ospatzen du bi taldeek lana batera egin izana; izan ere, Legebiltzarreko ekimenak bermatu egingo ditu, horrela, gutxieneko baliabide batzuk, ekonomikoki txarren daudenez bizitza duina izateko, eta, halaber, gizarte-bazterketako egoerarik egon ez dadin lagunduko du.

SISTEMA EGUNERATUA, AUTONOMOA ETA HURBILA

Araudi-testuaren helburua da Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eguneratzea, sistema autonomo gisa, prestazioen onuradunek lan-merkatura sartzeko eta gizarteratzeko dituzten aukerak hobetzea, herritarrengandik hurbilago egongo den sistema ezartzea laguntza “pertsonalizatuak” errazago emateko, eskainitako prestazioen babesa hobetzea eta prestazioen kudeaketaren hobekuntzan aurrera egiteko eta epeak bete ahal izateko baliabideak ematea.

Gobernuaren iritziz, proposamen ausarta eta integrala da, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema:

- ✓ Autonomia izateko, baina Euskadiko hiru erakunde-mailen kudeaketa eta funtzionamendu partekatuarekin.
- ✓ Babesa pixkanaka areagotzeko aukera ematen duten funtzionamendurako egitura-oinarriak izateko, gizarteratzeko tresna ekonomiko, sozial eta lanekoen konbinazioari esker.
- ✓ Euskadi barruan sistemaren homogeneotasuna bermatzeko, zuzentasun- eta berdintasun-irizpideekin
- ✓ Prestazioak kobratzen dituzten pertsonak lan-merkatuan sar daitezen bultzatzeko
- ✓ Prestazioak kobratzen dituzten pertsonen gizarteratzeari bide emateko

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

INDARTU 2018: 8 MILIOI EURO NERBIOI ITSASADARRAREN EZKERRALDEAN ETA OIARTZUALDEAN EKOIZPEN-INBERTSIOAK EGITEN DITUZTEN ENPRESENTZAKO DIRU-LAGUNTZENTZAT

- **Laguntzak langabezia-tasa EAeko urteko batez bestekoaren % 20 handiagoa duten beste udalerrietara ere iritsiko dira**

Eusko Jaurlaritzak 8.000.000 euro bideratuko ditu INDARTU 2018 programaren bitartez, Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean ekoizpen-inbertsioak egin eta gune horietako lehiakortasun-hobekuntza eta garapen ekonomikoa eragingo duten enpresentzat. Gainera, programa horri esker, langabezia-tasa Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20 handiagoa duten udalerrietara ere iritsiko dira laguntzak.

Diru-laguntza horiek Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak sustatutako 2017-2020 Industrializazio Planaren baitakoak dira. Plan horrek enpresa-inbertsioak bultzatzeko eta enplegu-aukera berriak sustatu eta sortzeko laguntza integrala ezartzeko tresna eta programa egokiak egituratzen ditu. Horrez gain, diskriminazio positiboa ezartzen du; bereziki, Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean errotutako inbertsioak sustatzeko, eta langabezia-tasa Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20 handiagoa duten udalerrietan estrategikotzat eta lehentasunezko hartzen diren inbertsioak egiteko.

Aipatu Planaren aplikazioaren arabera, INDARTU Programak:

- Enpresa berriek zein lehendik zeuden enpresek egindako ekoizpen-inbertsioak sustatzen ditu, eta lehentasuna izango dute produktuaren eraldaketa-prozesuaren, gaitasunen areagotzearen edo jarduera berrien garapenaren hobekuntzarekin zuzenean lotutako inbertsioek.
- Langabezia-egoera larritasun handienarekin pairatzen duten guneak ditu ardatz.
- Inbertsioak behar bezala finantzatzeko beharra nabarmentzen du, eta laguntza jaso dezaketen inbertsioen guztizkoaren % 25a Berezko Baliabideekin estaltzea eskatzen du, hori hastean, enpresa berrientzat eta lehendik zeuden enpresentzat, jaso ditzaketen laguntza publikoak kenduta.
- Enpresa bakoitzak, gehienez, hiru milioi euroko laguntza jasoko du, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren arabera, sortuko den enpleguaren bolumena edozein delarik ere.

Nori zuzenduta dago:

INDARTU Programaren diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte Enpresa Handi zein Enpresa Txiki eta Ertainek (ETEk), erazteko, eraldatzeko, ekoizpeneko eta aurrekoei lotutako zerbitzu tekniko aurreratuko (produktu-prozesuari lotutako) industria-enpresak direnak, baita zerbitzu logistikoko enpresak ere,

garraioa izan ezik, horien inbertsioen objektua Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezker aldean eta Oiertzualdean kokatzen badira, eta, soilik, Enpresa Txiki eta Ertainak (ETE), ezaugarri horiek dituztenak, langabezia-tasa urteko batez bestekoaren % 20 handiagoa duten gainerako udalerrietan inbertsioak egiten badituzte.

INDARTU laguntzak eskatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Nerbioi itsasadarraren ezker alde eta Oiertzualdea izango dira honako hauek:

- A) Oiertzualdea (Gipuzkoa), honako udalerri hauek osatzen dute: Errenteria, Pasaia, Lezo, Oiertzun, Hondarribia, Irun eta Hernani.
- B) Nerbioi itsasadarra (Bizkaia), honako udalerri hauek osatzen dute: Sestao, Ortuella, Trapaga Harana, Abanto, Muskiz, Zierbana, Portugalete, Santurtzi, Barakaldo, Alonsotegi eta Erandio.

Halaber, deialdi honetan ezarritakoaren arabera, gainerako udalerriak izango dira, gune ahulenzat hartzen ez diren kasuetan, langabezia-tasa Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoaren % 20 handiagoa dutenak, ezarritako azken kalkularen arabera, EUSTATen eskuragarri dagoena (http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_c.html) eta honako hauek dira:

- a) Araba: Artziniega, Asparrena, Berantevilla, Bastida, Lagran, Lantziego, Lantaron, Moreda, Okondo, Agurain, Ekora eta Zanbrana.
- b) Bizkaia: Areatza, Arrigorriaga, Artzentales, Balmaseda, Basauri, Bermeo, Bilbo, Busturia, Elantxobe, Ermua, Gueñes, Izurtza, Karrantza, Lanestosa, Ondarroa, Sukarrieta, Trutziotz, Ugao, Urduña, Zalla eta Zaratamo.
- c) Gipuzkoa: Alegia, Berrobi eta Ikaztegieta.

Eskaerak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindu hau argitaratu eta hurrengo eguneko 9:00etan hasiko da eta 2018ko irailaren 28an eguerdiko 12:00etan amaituko da, edo eskuragarri dauden funtsak agortzen direnean.

Gainera, egoitza elektronikoaren helbidea edo, gutxienez, www.euskadi.eus jarri beharko litzateke.

Euskadiko klusterren antolakunde dinamizatzaileek 2.968.000 euroko laguntzak jasoko dituzte

Halaber, Kontseiluak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren agindua onartu du gaur, eta, horren arabera, 2018ko ekitaldirako arautu eta deituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko klusterren antolakunde dinamizatzaileei laguntzeko diru-laguntzak.

Helburu horretarako 2.968.000 € bideratuko dira, klusterren antolakunde dinamizatzaileak klusterreko kideen arteko lankidetzak sustatzen lan egiten baitute, bereziki, berrikuntza-sistemako eragileen eta ETEen artekoa, balio-kate globaletan txertatzea bultzatuz.

Gure ekonomiaren bizkarrezurra dira, baina ETEk zailtasunak dituzte erronka globalei bakarka aurre egiteko, dimentsio falta dela eta. Lankidetzaz ezinbestekoa da ETE askoren bideragarritasunerako, eta klusterren antolakunde dinamizatzaileek lankidetzaz hori laguntzea dute helburu. Gainera, berariazko ezagutza eta trebetasunak sortu, garatu eta kontzentratzeari esker, kluster indartsuak egoteak talentua eta inbertsioa erakartzen du lurraldera. Eragileei helburu estrategiko komunak definitzen eta aipatu erronkei erantzuna emateko lankidetzarako proiektuak ezartzen laguntzen dute.

Klusterren antolakunde dinamizatzaileak, orokorrean, dimentsio txikikoak dira. Hori dela eta, horien baitako ETEek bezala, antolakunde dinamizatzaileek beren artean lankidetzaz aritu behar dute, konbergentzia-prozesuak egin eta hazteko; hala, indartu eta baliabide eta gaitasun handiagoak lortu ditzakete, eraginkortasunez jorratzeko ordezkatzan duten klusterrak aurre egin beharreko lehiakortasun-erronka eta erronka globalen aurrean duten funtzioa.

Euskadiko enpresa eta klusterrek aurre egin beharreko erronka globalei erantzuna emateko, ekonomian industriaren pisua areagotzeko, maila teknologikoa eta enpresen nazioartekotzea handitzeko, ETEena bereziki, Eusko Jaurlaritzak, eragile ekonomikoekin lankidetzaz, beharreko zuzentzarau eta tresnak garatzen ditu (EAEko Klusterren Mapa, RIS3 Espezializazio Estrategia, 2017-2020 Industrializazio Plana, edo horiek ordezkatu edo eskumen-alorretan esanguratsuak diren gainerako Plan eta Estrategiak).

Baldintzak

Laguntza horiek eskatzeko Baldintza Orokorrak:

- a) Klusterraren antolakunde dinamizatzailearen urteko Jarduteko Plana edukitzea.
- b) Nahikoa masa kritikoa. Batutako enpresen fakturazioa Euskal Autonomia Erkidegoko BPGren % 1 baino handiagoa izatea eta horren kopurua 30 baino handiagoa.
- c) ETEen parte-hartzea. Batutako erakundeen % 60, gutxienez, ETEak izatea, eta horrek baldintza hauek betetzea esan nahiko du:
 - 250 langile baino gutxiago izatea.
 - Urteko negozio-bolumena ezin da 50 milioi euro baino gehiagokoa izan, edo bestela, urteko balantze orokorra ez da 43 milioi euro baino gehiagokoa izango.
- d) Klusterraren antolakunde dinamizatzaileak bere kideen artean berau osatzen duten erakunde mota guztien arteko ordezkariak orekatua izango du.
- e) Klusterraren antolakunde dinamizatzailearen jarduteko eremua, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.
- f) Lankidetzaz sustatzeko jarduerak Eusko Jaurlaritzaren Plan eta Estrategien arabera garatzea (EAEko Klusterren Mapa, RIS3 Espezializazio Estrategia, 2017-2020 Industrializazio Plana edo horiek ordezkatu edo eskumen-alorretan esanguratsuak diren gainerako Plan eta Estrategiak).
- g) Pertsona gerente bat erabateko arduraldian izatea, eta langile kualifikatu talde bat edukitzea enpresa bateratuen eta dinamizatzea helburu duten jardueren arabera.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

NEKAZARITZA ETA INGURUMENAREN ALORREKO 300.000 EUROREN LAGUNTZAK IRAGARRITA, LABORANTZA ESTENTSIBOEN DIBERTSIFIKAZIORAKO NEKAZARITZAKO EKOIZPEN TEKNIKA IRAUNKORREN BIDEZ

- **Baliabide naturalen iraunkortasuna eta arrazoizko ustiapena bilatzen dute, bai eta ingurunearen babesa ere, nekazarien errentak mantenduta eta hobetuta**
- **Laguntza horiek nekazaritza jardun egokietara bideratuta daude, eta OSOAn, Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Planean (2015 – 2020), daude jasota**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako sailburu Arantxa Tapiak nekazaritza eta ingurumenaren alorreko 300.000 euroren laguntzak iragartzeko agindua eman du, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Planean aurreikusita baitaude, eta Eusko Jaurlaritzak, azken kontseilu bileran, onarpena eman dio agindu horri.

Laguntza horiek, 300.000 euroren balio dutenak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordearen estrategia bat da, eta baliabide naturalen iraunkortasuna eta arrazoizko ustiapena dute helburu, bai eta ingurunearen babesa ere, nekazarien errentak mantenduta eta hobetuta, laborantzak teknikoki antolatzen baitira. Hala, bultzatu nahi da ekoizpen jardueren dibertsifikazioa, laborantzen errotazioak eta aldeko baldintza fitosanitarioen ustiapena.

Baldintzak

Laguntzen onuradunak izan daitezke nekazaritza ustiategien titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak, edo legez eraturako nekazari taldeak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan lursailak baldin badituzte eta lursail horiek dagokien erregistro ofizialean inskribatuta baldin badaude. Gutxienez laborantza estentsiboen 2 ha eduki behar dituzte ustiategian, aurreikusitako laborantza multzotik, eta 1 ha baino gutxiagoko laborantza multzoez ezingo dute laguntzarik eskuratu; lursailetan, berriz, laborantza hauek erein beharko dira erregulartasunez eta homogeneoki:

- Udako laborantza ureztatuak diren lekale haziak gizakien kontsumorako.
- Udako laborantza ureztatuak diren barazki estentsiboak
- Hazitarako patata eta gizakien kontsumorako patata
- Azukrerako erremolatxa.

Ustiategi horien titularrek agindu behar dute gutxienez 5 urteko epean nekazaritza eta ingurumenaren alorrean eskatzen zaizkien konpromiso eta teknikak aplikatuko dituztela. Hori izango da, hain justu, nekazaritza eta

ingurumeneko kontratua, ondorio guztietarako. Agindutako aldia bukatu eta gero, eta dagokion araudiak eta aurrekontuetan erabilgarri dagoenak egiten uzten badute, laguntza urtebete luzatzeko eskatu ahal izango da.

Eskatzaile bakoitzak jasoko duen laguntza kalkulatzeko, nekazaritza eta ingurumeneko metodoekin landutako azalera unitateko kopuru batekin biderkatutako da -240 eta 60 euro artean hektareako, eta laborantza motaren eta hartzen diren derrigorrezko zein aparteko konpromisoen arabera-.

Agindu honetan aurreikusten diren laguntzen kudeaketa Arabako Foru Aldundiaren esku egongo da, Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako hitzarmena egokiaren arabera. Eskariak Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari bidaliko zaizkio, eta, aurkeztu, Arabako Foru Aldundiak horretarako ezarriko duen ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan edo, bestela, Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

HITZARMENA IRUNGO UDALAREKIN, 34 ZUZKIDURA BIZITOKI ERAIKITZEKO

Gobernu Kontseiluak baimendu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Irungo Udalaren artean hitzarmena sinatzea, Oinaurre auzoan 34 zuzkidura-bizitoki eraikitzeke.

Zuzkidura-bizitokien helburua aldi baterako etxebizitza ematea da; izan ere, okupatzaileak ezin dira bertan bost urte baino gehiago egon. Ezaugarri horiek egokiak dira lehentasunez erantzuteko gazteen etxebizitzaren premiei.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Eusko Jaurlaritzak zuzkidura-bizitoki horiei lotutako eraikuntza- eta hirigintza-obrei 4 urteko epean ekingo die, doako lagapena eskritura publikoan formalizatzen denetik.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, gaur egun, guztira 846 zuzkidura-bizitokiren sustapena du martxan, autonomia-erkidegoko 12 udalerritan.

Hezkuntza

DEKRETUA, IKASKETA ARTISTIKOEN IRAKASKUNTZA SEKTORE PUBLIKOKO BESTE JARDUERA BATZUEKIN BATERAGARRI EGITEN DUENA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Ikasketa Artistikoen irakaskuntza sektore publikoko beste irakaskuntza- edo kultura-jardueraren batekin bateragarri izatea interes publikoko deklaratzeko duen Dekretua.

Dekretu hau indarrean sartzearekin, bateragarri izango da Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe publikoetako Ikasketa Artistikoetako irakaskuntza, sektore publikoan bigarren irakaskuntza-jarduera edo kultura-jarduera bat burutzearekin. Hau da, bateragarria izango da Toki Administrazioen titulartasun publikoko ikastetxeetako Ikasketa Artistikoen irakaskuntzarekin, edo Musikeneko irakaskuntzarekin. Era berean, bateragarri izango da honako talde hauetan burutu daitekeen lan edo jarduera artistikoarekin: orkestra sinfoniko edo kamera orkestretan, banda sinfonikoetan, koruetan, eta dantza nahiz antzerki taldeetan, guztiak ere titulartasunez sektore publikokoak izanik.

Dekretu honen asmoa da, aipaturiko irakasle horiek euren lanaldia osatzeko aukera izatea. Bigarren jarduera horretako lanaldia ezin izango da hamabost orduetik gorakoa izan asteen, eta gehienez 175 ordukoa izango da ikasturteko. Nola nahi ere, bigarren jarduera hau lan-erregimenean gauzatuko da, lanaldi partzialean eta iraupen jakin baterako.

Hezkuntza

320.000 EURO IKERKETA LANETAN LAGUNTZEKO IKASIKER BEKETARAKO

- **320.000 euroko zenbatekoarekin, 160 beka eskainiko ditu**
- **Beka jaso duten ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeetan, BERCetan, Ikerketa Sanitarioko Institutuetan edo Ikerketa Kooperatiboko Zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beketarako deia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran.

Ikasiker beka unibertsitate ikasleei zuzenduak dira, ikasketekin aldi berean (2018ko irailtik 2019ko abuztuaren 31ra bitartean) honako ikerketa talde hauetan laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikertaldeetan, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroetan (IKZ). Guztiak ere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa kreditatutako zentroak dira.

Programaren helburua da unibertsitate-ikasleak euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarrizko ikerketa aplikatuaren arloko lanetan hastea. 320.000 euroko diru-kopuruarekin, 160 beka eskainiko dira, honako modalitate hauetan:

- A modalitatea (ikasturtean zehar, 2018ko irailtik 2019ko ekainera): 120 beka.
- B modalitatea (udan, 2019ko uztailetik abuztura): 40 beka

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko Graduoko titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketen-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean edo Estatuko unibertsitate batean. B modalitatean parte hartu ahal izango dute, aurrez aipaturikoez gain, Master titulazio ofizial batean matrikulatuta daudenek ere.

Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetzaren proiektu bat aurkeztu, lankidetzaren hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

Hezkuntza

1,8 MILIO EURO LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLEEN LIBERAZIOETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez gaurko bileran onartu du, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntza deialdia egiten duen agindua. Diru-laguntza horiek izango dira 2018-2019 ikasturtean Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak gara ditzaten.

1.817.000 euroko zenbateko globalarekin, deialdi honen xedea da itunpeko ikastetxe pribatuetakoko irakasleen liberazio osoa edo partziala finantzatzea, ikastetxeek Lanbide Heziketako IV. Euskal Planean estrategikotzat hartutako eremuetan jarduerak burutu ditzaten.

Lanbide Heziketaren IV. Euskal Planak, Lanbide Heziketako euskal sistema eraldatzeko prozesuan gidari nagusia den aldetik, ondorengo eremu estrategikoetan integratzen diren lehentasunezko helburu eta jarduera-ildo batzuk ezartzen ditu: Prestakuntza integratua, Berrikuntza aplikatua, Ekintzailtza aktiboa, Nazioartekotzea eta Lanbide Heziketako ikastegiak.

Beraz, aipaturiko eremu estrategiko horiek aintzat harturik, Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeek parte har dezakete, euren irakasleen liberazioak baliatuz, honako jarduera eta proiektu mota hauetan:

- irakasleen prestakuntza sendotzen duten jarduera eta proiektuetan. Prestakuntza horren xedea izan beharko da ikaskuntza-ingurune gero eta espezializatu eta konplexuagoetara egokitutako gaitasunak eta metodoak garatzea.
- Lanbide Heziketaren enpresetako partaidetza bultzatuko duten jarduera eta proiektuetan, bereziki Enpresa Txiki eta Ertainetan (ETEetan).
- suspertzen ari diren sektoreetan sakonduko duten proiektu eta jardueretan, giza kapitalaren espezializazioaren eta berrikuntza aplikatuaren bidez.
- enpresen espezializazio-maila hobetzeko Lanbide Heziketako ikastetxeen partaidetza sustatuko duten jarduera eta proiektuetan; bereziki honako ETE hauetan: ingurune konplexuetan lan egiten dutenetan, eta berrikuntza aplikatuko zein Lanbide Heziketako ikastetxeetatik eurretatik sortzen diren ekintzailtza proiektuak babesten dituzten ETEetan.

Gorago aipaturiko irakasleek garatu ditzaketen jarduerak, aldi berean, ahalbidetu beharko dute prozesu horretan jaso den ezagutzaren transferentzia gertatzea bai ikasleei, bai Euskadiko gainerako Lanbide Heziketako ikastetxeei, eta baita inguruko enpresei ere, bereziki ETEei.

Hezkuntza

1,2 MILIOI EURO ULIBARRI HIZKUNTZA-NORMALKUNTZARAKO PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, onartu du 2018-2019 ikasturterako gehienezko diru-laguntzak zehazten dituen Agindua, hizkuntza-normalkuntzarako Ulibarri Programan parte hartzen duten edo hartu nahi duten ikastetxeei zuzendutakoa. Halaber, programan sartzeko edo jarraitzeko baldintzak zehaztu eta dedikazio-orduak finkatzen dira.

Agindu honek ondorengo diru-laguntzak onartzen ditu: 50.000 euro programan ikastetxe gehiago sar daitezen eta 1.175.000 euro parte hartzen duten ikastetxeek jarrai dezaten.

Ulibarri Programako ikastetxeetako hizkuntz normalkuntzarako proiektuek eskoletako egunerokoan euskararen erabilpena sustatzea dute helburu nagusia. Ikastetxe hauek, eragile guztien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektu bat adosten dute. Ikastetxeko Normalkuntza Proiektua egiteko, egoera aztertu eta diagnosia egiten dute zentro hauek. Ondoren, lau urterako proiektua (HNP) zehazten dute, eremuz eremu, honako hauek definituz: helburuak, abian jarriko diren jarduera motak, arduradunak, ebaluaziorako adierazleak eta denboralizazioa.

2017-2018 ikasturte honetan, Euskadiko 391 ikastetxek hartzen dute parte Ulibarri programan: 226 ikastetxe publiko eta 165 itunpeko.

Hezkuntza-administrazioak, ikastetxeek eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko edo itunpekoetako hizkuntz normalkuntzarako proiektuen garapenean parte hartzen duen beste edozein erakundek batera egindako jardueraren bidez osatuko dute Ulibarri Programa.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

**TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HIRIGUNE
PROGRAMARAKO DEIALDIA EGIN DU HIRI-MERKATARITZAREN
LANKIDETZA, DINAMIZAZIO ETA LEHIAKORTASUNERAKO
ESTRATEGIAK BULTZATZEKO**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Hirigune programaren deialdia onetsi du, 1.810.042,86 euroko aurrekontua duena Udalen jardueretarako, eta 2.373.826,70 eurokoa Merkatarien Elkarteen eta elkarte mistoen edo hiri-merkataritzako plataformen, taldeen edo elkarteen jardueretarako.

Programa honek hiriguneetan merkataritzaren lehiakortasuna eta marka-posizionamendua hobetzea ditu helburu. Gainera, eskualde-elkarlanerako urteko proiektuen ezarpena eta garapena bultzatzea du asmoz. Hala, merkataritza-dentsitate txikiko eremuetan kokatutakoak izango dira, beren izaeratik proposamen estrategikoak egingo dituztenak indarberritu behar diren eskualde-hornikuntza komertziala hobetzeko.

Programa honen onuradun dira, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteak, Elkarte Mistoak eta Merkatarien Elkarteen Federazioak edo Konfederazioak, Merkatarien Erroldan inskribatuta daudenak. Programa honen onuradun izan daitezke gainera EAEko 15.000 biztanletik gorako udalerrriak edo 15.000 biztanle baino gutxiago dituztenak, Hirigune Historikoa dutenak, eta merkataritza indarberritzeko potentzialtasuna erakusten dutenak, beren eskualde-eremuan erreferentzi gune ekonomiko/komertzial gisa hartuak eta 100 establezimendu baino gehiago dituzten eskualde-buruak.

Internet bidez bakarrik egin eta bete daitezke eskaerak, helbide honetan: https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/dec-2018/y22-izapide/esbertan kokatutako funtzionalitateen bitartez.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

MEC PROGRAMAK 2.100.000 EURO ZUZENDUKO DITU SALTOKIAK MODERNIZATZEN LAGUNTZEKO

Merkataritza Saltokiak Modernizatzeko Laguntza Programak (MEC) euskal saltokien kudeaketarako tresnen eta azpiegituren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzea du helburu. Aurten, bere aurrekontutik 2.100.000 EURO zuzenduko ditu helburu horiek lortzeko diren hainbat laguntza-lerrotara.

Itzulgarriak ez diren diru-laguntzat hartuko dira laguntzak, eta burututako eta ordaindutako inbertsioak finantzatzeko izango dira. Gehieneko diru-laguntza 9.000 eurokoa izango da enpresa eta urte bakoitzeko. Zenbateko horrek ezin du izan onartutako inbertsioaren % 30etik gorakoa.

Merkataritza-jarduera duten enpresei bideratuko zaizkie laguntzak, halakotzat hartuta helburu horretarako erositako produktuak edo merkantziak merkaturatzea, eta baita azken kontsumo-ondasunen salmenta ere, ekoizleek, artisauek edo industrialek zuzenean egindako salmenta alegia, halakotzat hartuta produkzio-, merkaturatze- edo hirugarrenei emandako zerbitzu-prozesuetan sartuko ez diren ondasunak.

Laguntza-portzentajearen portzentaje-hazkunde berriak gehitu dira:

- 3 puntu gehigarri Berdintasun edo Kontziliazio Plan bat izateagatik
- 2 puntu gehigarri balio erantsia eta berezitasuna ekarriko dituen inbertsio bat egiten bada, edo ekimen berritzaile bat bada
- 2 puntu gehigarri enplegatuen erdiek gutxienez kontratu finkoa duten saltokietarako.
- 2 puntu gehigarri Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzeagatik.

Interesatuak 2018KO EKAINAREN 1ETIK UZTAILAREN 2RA arte aurkez ditzakete eskaerak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 363.600 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU ZAZPI KULTUR ARLOTAN SORKUNTZA SUSTATZEKO

- **Lehen aldiz sartu da koreografia-sorkuntza diru-laguntzen ildo honen barruan**

Gobernu Kontseiluak, bere gaurko bilkuran, 363.600 euroko kontu-saila onartu du kultur sorkuntza bultzatzeko zazpi arlo ezberdinetan. Joan den urteko diru-laguntzen ildoarekin alderatuta, koreografia-sorkuntzaren atala izan da aurtengo berritasun nagusia —lehen, dantzarako diru-laguntzen barruan sartzen zen—.

Diru-laguntza hauen zenbateko osoa zazpi ataletan banatzen da:

- Antzerki-testuak: 52.000 euro.
- Gidoi zinematografikoak: 100.000 euro.
- Musika-konposizioak: 50.000 euro.
- Proiektuen eta prototipoen aurretiazko diseinuak (Ikertu): 52.200 euro.
- Gazteei zuzendutako euskarazko literatura-testuak: 40.000 euro.
- Euskarazko narrazioak eta nobela laburrak: 40.000 euro.
- Koreografia-sorkuntza: 28.800 euro.

Deialdi honen helburua da euskaraz zein gaztelaniaz lan egiten duten sortzaileen lana diru-laguntzen bidez sustatzea eta, hartara, arte eszenikoen, literaturaren, ikus-entzunezkoen edota musikaren sektoreak finkatzea, kulturaren ikuspegitik garrantzi handikoak eta beharrezkoak baitira.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EURO ONARTU DITU KULTURA JAIALDIEN PROGRAMAZIOA DIRUZ LAGUNTZEKO

- **lazko deialdiaren bitartez diziplina ezberdinetako 25 jaialdik jaso zituzten diru-laguntza hauek**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 350.000 euroko kontu-saila onartu du bere gaurko saioan kulturaren arlo ezberdinetan jaialdien programazioa diruz laguntzeko. Deialdi honi esker, musikaren, literaturaren, antzerkiaren, dantzaren, ikusizko arteen eta ikus-entzunezkoaren arloan antolatzen diren jaialdiek Eusko Jaurlaritzaren babes ekonomikoa izango dute. lazko deialdiaren bitartez 25 jaialdiren jarduera diruz lagundu zen.

Deialdi hau iaz sartu zen berriro indarrean, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2016. urtean berregituratu eta eraberritu ostean. laz bezala, deialdia jaialdi pribatuetara mugatuko da, eta erakunde publikoek antolatutakoak ezin izango dira aurkeztu (jaialdi publiko askok Eusko Jaurlaritzak bultzatutako deialdi izendunak jasotzen dituzte). Deialdiak bi multzotan banatzen ditu jaialdiak. Alde batetik, jaialdi handiak daude, 100.000 euro baino gehiagoko aurrekontua dutenak; bestetik, jaialdi txikiak daude, 100.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua dutenak. Banaketa berri honen helburua da jaialdi nagusien eta txikien arteko lehia desorekaturik ez sortzea.

Gutxieneko aurrekontua eskatuko zaie jaialdiei diru-laguntza jaso ahal izateko, bideragarritasuna bermatze aldera. Deialdiaren azken edizioan 25 jaialdik jaso zuten diru-laguntzaren bat. Loraldia Jaialdia, Mundaka Festival, Gasteiz Calling, Zinegoak Jaialdia, Donostikluba Festibala edota Azken Muga izan ziren diruz lagundu ziren jaialdietako batzuk, beste askoren artean. Deialdi honetaz aparte, Eusko Jaurlaritzak hainbat jaialdi laguntzen ditu diru-laguntza izendunen bidez.

Presidencia

EL GOBIERNO DESTINARÁ ESTE AÑO 35,5 MILLONES DE EUROS A AYUDAS A PROYECTOS DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

- **En la actualidad se encuentran en marcha alrededor de 300 proyectos financiados por la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno en su reunión de hoy a la convocatoria de ayudas a proyectos de cooperación para el desarrollo que este año suman un total de 35,5 millones de euros.

Las ayudas a proyectos de cooperación representan el principal eje de actuación del Gobierno Vasco en esta materia y hacia ellas va dirigida la mayor parte de los fondos que gestiona la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.

Las ayudas irán dirigidas a financiar proyectos en tres modalidades.

- 1. Proyectos de cooperación para el desarrollo** que contribuyen a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad va dirigida la mayor parte de las ayudas, con un monto de 29.000.000 euros.
- 2. Proyectos de desarrollo productivo, formación y asistencia tecnológica**, vinculados directamente a la lucha contra la pobreza en países empobrecidos del Sur. A esta modalidad se destinarán 1.200.000 euros.
- 3. Proyectos de educación al desarrollo** llevados a cabo en la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de fomentar la comprensión de las causas que generan las desigualdades en el mundo y de incentivar la implicación y compromiso de la ciudadanía en la transformación de los modelos sociales actuales. A estos proyectos van dirigidos 5.300.000 euros.

Las destinatarias de estas ayudas serán las ONGD vascas, o con delegación en Euskadi, que trabajan de la mano con organizaciones y movimientos de países del Sur.

Las subvenciones por proyecto -cuya duración será de dos años- no serán superiores a los 600.000 euros, y los sectores en los que se enmarcarán son: derechos universales, gobernanza democrática y poder local, desarrollo económico local, protección y conservación ambiental, y empoderamiento de mujeres.

En la actualidad, la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo financia alrededor de 300 proyectos en todo el mundo. La mayoría de ellos, además de en Euskadi, se concentran en Perú, Bolivia y Ecuador, en Sudamérica; Guatemala, El Salvador y México, en Centroamérica; República Democrática del Congo, Senegal y República Árabe Saharaui Democrática, en África; y India y Palestina, en Asia.

Las indicaciones de cómo tramitar las solicitudes y toda la documentación a presentar están disponibles en la sede electrónica: <https://euskadi.eus> y en la página web **www.elankidetza.euskadi.eus**.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente de la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO CELEBRA LA PROPUESTA CONJUNTA DE EAJ-PNV Y PSE PARA ELABORAR UNA LEY QUE ACTUALICE EL SISTEMA VASCO DE GARANTÍA DE INGRESOS

- **Manifiesta criterio favorable a la toma en consideración de su proposición de ley porque es un texto que pretende adaptar la prestación a las necesidades actuales, mejorar el sistema e incrementar los índices de protección y de cohesión social**

